

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

2024-2025 ikasturtean musika ikasketak egiteko laguntza deialdia

Zalduondoko Udaltzaren, 2025eko urtarrilaren 30ean egindako bilkura berezian, 2024-2025 ikasturtean musika ikasketak egiteko laguntzen deialdia arautzen duten oinarriak onetsi zituen.

Bat etorri Dirulaguntzen Lege Orokorra 9. artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek, denek jakin dezaten eta interesdunek eskaerak aurkez ditzaten.

2024-2025 IKASTURTEAN MUSIKA IKASTEKO LAGUNTZEN DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

ZIOEN ADIERAZPENA

Zalduondoko Udaltzaren ustez, musika hezkuntzak garrantzi handia du pertsonen trebakuntzan eta herri honetako kultura eremu tradizionalan. Hortaz, horren sustapena garatu beharreko helburu bat da. Sustapen lan hori gauzatzeko moduetako bat udalerriko herritarrei laguntzak ematea da, musika prestakuntza jaso dezaten laguntzeko, haien baliabideak ez direlako nahikoa helburu horretarako.

LEHENENGO OINARRIA. DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzek xede dute finantzatzen laguntzea Zalduondoko udalerrian erroldaturiko pertsonen udalak berak eta musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuek 2024/2025 ikasturtean antolatutako musika ikasketetan izena emateak eragindako gastuak.

Musika irakaskuntzaren gastuak dirulaguntzen bidez finantzatu dira, eta honako hauek aplikatu zaizkie: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta haren arautegia (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa), Toki Korporazioen Zerbitzuen Arautegia, Plan Estrategikoa, eta, azkenik, dirulaguntzen udal ordenantza.

BIGARREN OINARRIA. ONURADUNAK.

Onuradunak izango dira Zalduondoko udalerrian erroldatuta dauden pertsonak, baldin eta diruz lagunduko den jardueran izena eman aurretik, gutxienez sei hilabetez segidan erroldaturik egon badira, eta Zalduondoko udalak edo musika irakaskuntzako zentro arautu eta ez arautuek antolatutako musika jardueretara joaten direnak.

HIRUGARREN OINARRIA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROGRAMAK.

Laguntza deialdi honen ondorioetarako, dirulaguntzak musika ikasketei (1. mailako irakasgaiak, musika hizkuntza, instrumentua, harmonia modernoa, instrumentu taldea edo konboa, ahots taldea, irakaskuntza indartua) dagokien matrikula eta hileko kuotak ordaintzeko emango dira, deialdiko zazpigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

LAUGARREN OINARRIA. ONURADUNEN ETA ESKATZAILEEN BETEBEHARRAK.

Hauek dira onuradunen betebeharrak:

Zentroan ematen zaien dedikazioa (orduak) ondo aprobetxatu dutela frogatu behar dute; frogatu ezean, baliteke emandako dirulaguntza ez jasotzea. Ikasturtean musika hizkuntzan 10 aldiz edo gehiago edo instrumentuan edo instrumentu taldean 6 aldiz edo gehiago huts egiten badute ez zaie emango laguntzarik. Ez dira kontuan edukiko gaixotasunagatik edo idatziz justifikatutako arrazoiren batengatik egiten diren hutsak.

Hauek dira eskatzaileen betebeharrak:

a) Zalduondoko Udalari betekizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea. Halaber, egiaztatu egingo da diruz lagundu daitekeen jardueran izandako bertaratzea, bai eta aprobe-txamendua egokia izan dela ere.

b) Dirulaguntza honen esparruan egiten diren egiaztapen jarduerak onartu behar dituzte eta eskatzen zaien informazioa eman behar dute.

c) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza edo diru sarrera-ren bat lortuz gero, ahalik eta azkarren jakinarazi behar diote Zalduondoko Udalari.

d) Jasotako funtsak erabili direla frogatzen duten agiriak eduki behar dituzte, egiaztatuak eta kontrolatuak izan baitaitezke.

e) Dirulaguntza itzuli behar izateko inguruabarretako bat gertatuz gero, jasotako kopurua itzuli beharko dute.

f) Eskaeran ezarri beharreko daturen edo agiriren bat ematen ez bada edo datu faltsua ematen bada, eskaera baliogabetuko da, eta horrez gainera eskatzaileari erantzukizuna eskatu ahal izango zaio.

g) Eskatzaileak egunean izan behar ditu indarreko xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai onuradun izateko bai onuradun izaten jarraitzeko emandako dirulaguntza likidatu arte.

BOSGARREN OINARRIA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Eskatzailearen NANaren fotokopia, edo aita, ama edo legezko tutorea, onuraduna adingabea bada.

b) Adingabeen kasuan, hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria. (www.justizia.eus web orrian eskura daiteke)

c) Kontu korrontearen zenbakia eta haren titularraren izen-abizenak eta NAN zenbakia.

d) Jarduera egiteagatik Udalari edo haren mendeko erakundeari ordainketa egin izana frogatzen duen bankuaren agiria edo, horrelakorik ezean, ordainagiriaren kopia (ordainketa egin dela agertu behar da). Bestela, zentroak edo dagokion udalak emandako ziurtagiria edo frogagiria aurkeztu daiteke, tasak ordaindu direla jasotzen duena, baina ordaindutako zenbatekoa eta ordainketak egunean dituela ere agertu beharko da.

e) Jarduera zein zentrotan egin den, haren jatorrizko ziurtagiria, honako hauek adierazten dituen: jardueraren hasiera eta amaiera data, emandako eta hartutako orduak guztira, jardueraren kostua eta musika ikasketak. Zalduondoko Udalak eskatuko du ziurtagiri hori.

f) Zinpeko adierazpena, beste dirulaguntzarik eskatu den ala ez esaten duena; halakorik eskatu bada, eskaeraren fotokopia konpultsatua. Eskaerari erantzun badiote, dirulaguntza onartzen (emandako zenbatekoa adierazi behar da) edo ukatzen duen ebazpenaren fotokopia konpultsatua. Ebazpena emateko zain egonez gero, horren berri eman behar da (II. eranskina).

g) Adierazpena, dirulaguntzaren eskatzailea eta onuraduna ez daudela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua jasotzen dituen onuradun izateko debekuen eraginpean (III. eranskina).

h) Zalduondoko errolda ziurtagiria, onuraduna udalerrian noiztik dagoen erroldatuta adierazten duena.

Eskatzaile batek adingabe onuradun bi edo gehiago baditu bere kargura eta haientzako dirulaguntza eskatu nahi badu, adingabe guztiak eskaera bakar batean bildu behar ditu eta artikulua honetan eskatzen diren agiriak adingabe onuradun bakoitzeko aurkeztu behar ditu.

Halaber, onuradunak diruz lagundu daitekeen jarduera bat baino gehiago egiten badu, orduan ere eskaera bat bakarrik aurkeztu behar du eta bertan jarduerok azaldu behar dira eta bakoitzari buruzko agiriak erantsi behar dira.

SEIGARREN OINARRIA. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.

Eskaerak honela aurkeztu ahal izango dira:

a) Linean, oinarri hauen I. eranskinean eta udalaren webgunean eskuragarri dagoen eskaera inprimakia aurkeztuz eta udal erregistro elektronikoan behar den gainerako dokumentazioarekin batera erregistratuz.

b) Udalaren bulegoetan, bulego horietan emango diren inprimaketan, eskatutako dokumentazioa erantsita.

Eskaerak, bosgarren oinarrian eskatzen den dokumentazioarekin batera, Zalduondoko Udalaren erregistroan aurkeztu behar dira. Epea 2025eko irailaren 19an bukatuko da.

Eskaera aurkeztutakoan, aztertu egingo da, ezarritako baldintza guztiak betetzen diren eta behar diren agiri guztiak erantsi diren egiaztatzeko, deialdi honetan ezartzen denarekin bat etorritik. Eskatzaileak hala egin ez badu, ohartaraziko zaio hamar (10) egun balioduneko epea daukala aurkeztu beharreko agiriak eta datuak zuzentzeko edo osatzeko, eta azalduko zaio hori egin ezean eskaeran atzera egintzat jo ahal izango dutela ebazpen baten bidez. Ebazpena Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik eman beharko da.

ZAZPIGARREN OINARRIA. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA.

Onuradun bakoitzak gehienez ere dirulaguntza hau jaso ahal izango du:

2025eko ekitaldirako adjudikatutako beken zenbatekoa ezingo da izan 600 euro baino handiagoa.

– Zenbateko hori era proportzionalean banatuko da partida agortu arte.

– Oinarrietan jasoriko dirulaguntzaren zenbatekoa ez da izango musika ikasketen kostu osoaren ehuneko 50 baino gehiago, eta era berean, ezingo da gainditu udal aurrekontuaren gehieneko muga.

– Epe barruan aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta, diruz lagundu beharreko gehieneko kopuruek dirulaguntzen aurrekontu esleipena baino gehiago egiten badute, bana-banako gehieneko zenbatekoak behar besteko ehunekoan murriztuko dira, aipatutako aurrekontu esleipenarekin ordaindu ahal izateko.

ZORTZIGARREN OINARRIA AURREKONTUKO ZUZKIDURA.

Dirulaguntzen zenbatekoa partida honen kontura ordainduko da: 326 481002 (Bekak, musika ikasketak). Zenbatekoa: 600 euro.

Dirulaguntzak borondatezkoak izango dira eta indarreko urtean baino ez dira aplikatuko. Aurrekoan jaso izana ezin izango da arrazoitzat eman eta ezin izango da eskatu dirulaguntza handitzeko ez berrikusteko, salbu eta aparteko inguruabarrak direla-eta horretarako arrazoiak badaude eta udalak onartzen badu.

Deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzak emateko ezinbestekoa izango da ebazpena ematen den unean aurrekontuan dirua egotea baliagarri, bai eta kreditu egokia eta nahikoa egotea ere.

Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzen guztirako zenbatekoa ezin da izan Udaltzatzen urtero onesten duen aurrekontu partidakoa baino handiagoa.

BEDERATZIGARREN OINARRIA. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA.

Udalaren bateragarriak dira eskatzaileek eskura ditzaketen beste laguntza batzuekin. Horregatik, eskaera aurkeztean adierazi behar da xede bererako beste laguntza edo dirulaguntzarik eskatu den ala ez. Eskatu bada, honako hauek aurkeztu behar dira: eskaeraren fotokopia konpultsatua eta dirulaguntza onartzen (zenbatekoa adierazita) edo ukatzen duen ebazpenarena; ebazpena eman ez bada, eskatzailea haren zain dagoelako adierazpena. Nolanahi ere, udalaren dirulaguntzaren zenbatekoa (bakarrik zein beste erakunde batzuen dirulaguntza edo laguntza batzuekin batera) ezin da izan inolaz ere jardueraren kostua baino handiagoa.

Onetsitako dirulaguntza berriro aztertu ahal izango da, gastuaren finantzabidea zein den eta beste laguntza edo diru sarrera batzuen ekarpen osagarriak zenbatekoak diren jakin ondoren. Horrelakoetan hau izango da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa: diru sarreraren eta gastuen arteko azken likidazioaren ondoriozko defizita.

HAMARGARREN OINARRIA ESKAERAK AZTERTU ETA EBAZTEA.

Laguntzen ebazpena emateko eskumena alkate-lehendakariak dauka; informazio batzordearen txostena eta dagozkien txosten teknikoak jaso ondoren emango du ebazpena.

Egokia iritziz gero, aurkeztutako agiriei buruzko datuak edo azalpenak eska ditzake udalak, eskaerak aztertu edo balioesteko.

Eskaerak udalean aurkezteko epea amaitzen denetik hiru hilabete pasatu baino lehen eman eta jakinarazi behar da ebazpena.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du eta ebazpenean bertan adieraziko da zer errekurtso jar daitezkeen haren aurka. Ebazpena Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da.

HAMAIKAGARREN OINARRIA. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA.

Dirulaguntzaren zenbateko osoa (ehuneko 100) laguntza emateko ebazpena onestean ordainduko da.

HAMABIGARREN OINARRIA. DIRULAGUNTZA GALTZEA.

Laguntzen onuradunek jarraian zehaztuko diren baldintzetako bat betetzen ez badute, espedientea irekiko da jasotako kopuruak eta dirulaguntza ordaindu zenetik sortutako berandutze interesak itzularazteko.

Hona hemen zein kasutan irekiko den dirulaguntza galtzeko espedientea:

- a) Deialdi honetako laugarren oinarrian ezartzen den gutxieneko asistentzia frogatzen ez bada.
- b) Aurkeztutako eskaeran edo agirietan datu faltsuren bat agertzen bada.
- c) Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka edo beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, onuradunari diruz lagundu zaion jardueraren kostua baino handiagoa bada.
- d) Zalduondoko Udalari ez bazaio jakinarazi beste dirulaguntza publiko edo pribatu batzuk jaso direla, nahiz eta ordurako udalak likidazioa onetsita izan.
- e) Eta, oro har, deialdi honetan ezartzen den betebeharren bat betetzen ez bada.

HAMAHIRUGARREN OINARRIA.

Dirulaguntza eskatzeak oinarri hauek eta Dirulaguntzen Udal Ordenantza ezagutu eta onartzen direla esan nahi du.

HAMALAU GARREN OINARRIA.

Zalduondoko Udalak datuak benetakoak diren eska eta egiazta dezake, bai eta oinarri hauetan arautzen dena betetzen den ere. Horretarako, pertsona onuradunek hitzematzen dute dirulaguntzaren xede den jardueraren inguruan eskatzen zaizkien datuak eta agiriak emango dituztela, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dituenak ere.

Halaber, udalari baimena ematen diote eskaeraren eta eskatzaileen inguruko informazioa eskatzeko eta datuak, baldintzak edota inguruabarrak egiaztatzeko edo argitzeko. Horretarako, udalak behar diren txostenak eta agiriak eskatu ahal izango dizkie erakunde eta pertsona publiko zein pribatuei.

HAMABOSGARREN OINARRIA.

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Zalduondoko Udalak ebatziko du.

HAMASEIGARREN OINARRIA.

Oinarri hauetan xedatu ez denerako, honako hauek hartuko dira kontuan: toki araubidearen arautegia; Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia; eta, udalak onartutako dirulaguntzen udal ordenantza eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

HAMAZAZPIGARREN OINARRIA.

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua, deialdi hau onetsi duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken horren esanbidezko nahiz ustezko ebazpenaren aurka, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Zalduondo, 2025eko otsailaren 6a

Alkatea

LURDES LEKUONA LABURU